

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

**UPV/EHUrako EKIPAMENDU ZIENTIFIKOAREN ETA  
FUNTS BIBLIOGRAFIKOEN EROSKETA ETA  
BERRITZEA FINANTZATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2017)**

## **ATARIKOA**

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat.

Deialdi honen helburua ekipamendu espezializatua gehitzea da, era honetara, ikertaldeek gaitasun zientifikoa eta teknologikoa handituz eta tamaina txiki eta ertaineko ekipamenduaren sorkuntza eta mantentze lana sustatuz.

Xede honetarako 400.000 euro bideratuko dira, Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa kontratuaren barruan "Ikerketa sustatzea eta piztea" helburuari dagokion "1.1. Ikerketa Proiektuak, taldeak eta ekipamendu zientifikoa" ekintzari egokitutako finantziazioan oinarritutako aurrekontu kredituaren arabera.

Horrela, bada, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) ontzat eman eta Gobernu Kontseiluak onartu eta gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du argitara ematea UPV/EHUrako ekipamendu zientifikoen eta funts bibliografikoen erosketak eta berritzea finantzatzeko laguntzen 2017ko deialdia.

### **1. oinarria.- DEIALDIAREN HELBURUA**

Deialdi honen helburua da UPV/EHUren sail eta institutu etako ikertaldeen eta Ikerketako Zerbitzu Nagusiek (SGIker) ekipamendu zientifikoa eta funts bibliografikoak erosketak kofinantzatzea. Eskaera egiten duen ikertaldeen eskatutako ekipamendua erosteko finantziatorik baduela frogatu beharko du, gutxienez, ekipamenduaren edo funts bibliografikoaren BEZ gabeko kostuaren % 15.

Materiala ikerketa proiektuak garatzeko erabiliko da, honako helburu hauek betetzeko:

- Ekipamendu moderno eta eraginkorra eskuratzea.
- Oraingo ikerketa ildoetarako lehiakorrek izateari utzi dietelako edo, kasurik txarrenetan, deskatalogatuta egoteagatik zerbitzu teknikorik ez daukalako zaharkituta geratu den ekipamendua berritzea.

Ekipamendu zientifikoa barne hartzen ditu ikerketako ekipamendurako erabilera espezifikoak duen kostu handiko softwarearen lizentziak, software libreko edo doako lizentziarik ez balego.

### **2. oinarria.- MODALITATEAK**

Laguntzak honako helburu hauetarako emango dira:

**A. Ekipamendu zientifiko berria erostea.** Modalitate honetan, eska daitekeen gehienezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira honako hauek:

- i. Ohiko ekipamendu informatikoa unibertsitateko irakasleen jarduerak garatzeko (ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, inprimagailuak, eskanerrak, eta abar).
- ii. Obra zibila, aire egokiturako aparatuak eta altzariak.

Aldiz, ekipamendu informatikoa eta softwarea finantzatu ahal izango dira, ikerketarako ezinbestekoak badira. Halako ekipamendua finantzatzeko eskaerarekin batera, beharrezko justifikazio tekniko egokia aurkeztuko da, baita behar horrek ikerketa proiektu zehatzekin duen zerikusia ere. Hori guztia IKTen Gerenteordetzako zerbitzu teknikoek aztertu ahal izango dute, deialdi honi hel diezaioketen ala ez erabakitzeko.

Eskatutakoaren antzeko ezaugarriak eta aplikazioa dituen ekipamendua baldin badago SGIker unitate batean, zergatik berri behar den justifikatu behar da. Hala egin ezean, eskaera baztertu egingo da.

**B. Berritzea** ekipo zientifiko zaharkituak eta, bereziki deskatalogatuta dauden ekipoak eta gaur egun erosiz gero 20.000 euro baino gehiago balio izango luketenak. Modalitate honetan, eska daitekeen gehienezko diru laguntza 60.000 eurokoa izango da.

**C. Funts bibliografikoak edo datu baseak erostea,** ikerketa proiektuak egiteko behar diren liburu multzo, bilduma edo datu baseak sail edo institutuaren ohiko funtsekin ordaindu ezin direlako, arlo horretako funts bibliografikoen batez besteko prezioa gainditzen dutelako edo UPV/EHUko Bibliotekan ez daudelako. Inola ere ez da diru laguntzarik emango aldizkarietako harpidetzak egiteko. Gehienez 10.000 euroko diru laguntzak emango dira.

### 3. oinarria. ESKATZAILEEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

3.1. Ondokoak izan daitezke honako deialdi honetan aurreikusten diren laguntzen eskatzaile:

3.1.1. SGIKer unitateak.

3.1.2. Jarraian zehaztutako UPV/EHUrekiko lan lotura motari buruzko baldintzaren bat betetzen duten eta abian dauden proiekturen batean edo ikertalde aktiboren batean parte hartzen duten ikertzaileek osatutako ikertaldeak:

a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHU kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUrak atxikita dauden Ikerbasque programako langileak eta irakasle atxikiak edo aldez aurretik izandakoak, baldin eta plaza iraunkor baterako akreditatua badago.

b. Langile ez iraunkorrak; horiei dagokienez, UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak 2018ko abenduaren 31ra artekoa izan behar du.

Horren harira, langile ez iraunkortzat hartuko dira, beste batzuen artean:

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUekin lotura duten langileak: doktorego aurreko kontratua (21. artikulua), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistema Espainiarrean sartzeko kontratua (22. artikulua) eta itzal handiko ikertzailearen kontratua (23. artikulua).
- UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzaren deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak.

Prestatzen ari diren doktoratu aurreko ikertzaileen kasuan, beren doktorego tesiaren zuzendariak proiektuaren taldeko kide izan behar du, eta beren kontratuak ezin du 2017ko ekainaren 30a baino lehen amaitu.

c. Ikerketako laguntzaileak, unibertsitatearen araudian ezarritako prozedurei jarraiki.

3.2. Ezin izango dituzte laguntza hauek eskatu ondorengo egoeretako batean dauden pertsonak:

- i. Epaia irmo bidez diru laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu izatea.
- ii. Diru laguntzak itzultzeagatik betebeharrak egunean ez izatea.
- iii. Erabaki irmo bidez legearen arabera diru laguntzak jasotzeko aukera galdu izatea.

3.3. Gutxieneko ikertalde eskatzailea hiru ikertzailek osatuko dute eta horietako hiru 3.1.2.a atalean adierazitako kolektiboetakoak izan beharko dira.

3.4. Gutxieneko ikertaldeko hiru kideetako bat ikertzaile nagusia izango da. Ikertzaile nagusiak doktore titulua izan behar du eta arduraldi osoan aritu behar du.

3.5. Ikertzaileek ezin izango dute aldi berean eskaera batean baino gehiagotan parte hartu.

3.6. Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu 2016ko deialdian finantziazioa izan duten ikertaldeetako ikertzaileek.

Aurreko 3.5 eta 3.6 ataletan ezarritako mugak ez zaizkie SGIKerreko eskaeretako ikertzaile nagusiei.

### 4. oinarria.- DIRU LAGUNTZEN EZAUGARRIAK ETA ZENBATEKOA

4.1. A eta B modalitateetako eskaerak ekipamendu osoak lortzeko dira eta ezin da horien zati bat erosteko eskaerarik aurkeztu.

Horrez gain, eskaeran eskatutako ekipoa jartzeko tokia badagoela adierazi beharko da.

4.2. Bestalde, funts bibliografikoak erosteko eskaeretan, C modalitatekoetan, obren izenburuak, egileak, argitaratzaileak eta, oro har, obrak identifikatzeko datu guztiak eman beharko dira.

Eskaera horiekin batera, UPV/EHUko Bibliotekaren ziurtagiri bat aurkeztuko da, eskatutako funtsen egokitasunari buruzkoa.

- 4.3. Ikertalde eskatzaileak eskaera egiteko unean baterako finantziatorako baliabiderik baduela frogatu beharko du, ondorengoaren arabera:
- Ekipamendua finantzatzeko funtsak gastuen edozein kapitulutan egon daitezke eta, eskaera jasotzean, blokeatu egingo dira kontabilitatean.
  - Ez da onartuko beste deialdi batean egindako finantziazio eskaeretatik ustez lortuko diren funtsak jartzea.
  - Ekipamendua finantzatzeko funtsen jatorri diren deialdiek funts horiek xede honetarako erabili ahal izatea onartu behar dute.
  - Ez da baterako finantziatortzat hartuko aurretiaz dagoen ekipamendua, bere izaera dela eta, erosi nahi denaren osagarri izan daitekeena.
- 4.4. Deialdi honen bidez emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira bestelako laguntzekin, haien ezaugarriak edozein direla ere eta alde batera utzita zein erakundek eman dituen, baldin eta laguntza guztiak batuta erosketaren kostua gainditzen ez badute. Ikertalde eskatzaileak helburu bererako zein laguntza lortu dituen adierazi beharko du eta gorago azaldutako baldintza betetzeko diru laguntzari egin dakizkiokeen murrizketak onartuko ditu.

#### 5. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEA

- 5.1. Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzari dagokio deialdi honetako diru laguntzak kudeatzea.
- 5.2. Eskaerak ikertzaile nagusiak egin behar ditu eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari zuzendu behar zaizkio. Ondoren, UPV/EHUko Erregistro Orokorrean, Leioan (Bizkaiko Campusa), campusetako erregistroetan edo ikastegietako erregistroetan aurkeztu behar dira. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako eran ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.
- 5.3. Eskaera orrien eredu arautuak Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura daitezke:
- <http://www.ehu.es/eu/web/ikerketaren-kudeaketa/home>
- 5.4. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta, gehienez, 15 egun baliodunera, Ikerketaren arloko errektoreordeak datu edo baldintza guztiak betetzen ez dituzten eskaeren zerrenda argitaratuko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web atarian. Bertan eskaera bakoitzak zer falta duen zehaztuko du. Hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda argitaratzen denetik hasita, dokumentazioa osatzeko. Epea igaro eta akatsak zuzendu gabe badaude, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, erabaki bidez, eta horren berri emango zaio interesdunari, 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan adierazitako eran.

#### 6. oinarria.- ESKAERAK EGITEKO AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko, Ikerketaren arloko Errektoreordetzako webgunean eskuragarri dauden ereduak erabili beharko dira.

Eskaeraren dokumentazioa paperean eta PDF formatuan aurkeztu beharko da [igz.deialdiak@ehu.es](mailto:igz.deialdiak@ehu.es) helbide elektronikoan, 6.1 eta 6.2 puntuetan adierazten den bezala:

- 6.1. Paperean honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:
- Eskaera orria, eredu arautuan.  
  
Eskaeraren zati eta gutxieneko edukiztat hartuko da, eta ezingo da zuzendu.  
  
SGIker unitateen kasuan, SGIkerreko zuzendariaren alde aurretiko baimena aurkeztu beharko da.
  - Funtsak erabili ahal izateko baimena, baterako finantziazioaz arduratzen den unitate organikoko ikertzaile nagusia ikertaldeko kide ez denean.

- c) B modalitateko eskaeren kasuan, ondarean baja emateko baimena, UPV/EHUren inbentario ofizialetik ekipo zaharkitua erretiratu dadin. Dokumentu hau laguntza eskatu duen eta ekipamendu zaharkitua kokatuta dagoen sail edo institutuko zuzendariak sinatu beharko du.

6.2. PDF formatuan aurkeztuko dira [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus) helbidean honako dokumentu hauek:

- a) **Aurreko puntuan (6.1 oinarrian) adierazitako dokumentuak.**  
b) **Memoria**, inprimaki normalizatua erabilita; bertan, ekipamendu hori zer ikerketa proiektutan, nola abiatutakoetan hala eskaturikoetan, erabiliko den adieraziko da espresuki.

Horrez gain, memorian ekipamenduaren ezaugarri teknikoak deskribatu behar dira, marka edo modelo zehatzik jarri gabe; deskribapen hori ekipamenduaren hornikuntza kontratatzeke prozesurako beharrezko dokumentazioa prestatzeko erabiliko da.

Dokumentu hau eskaeraren zati eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta ezingo da zuzendu.

- c) Gutxieneko ikertaldea osatzen duten ikertzaileen curriculumak.  
d) Ekipoa hornituko duen merkataritza enpresaren eskaintza edo proformako faktura, eskaturiko materialaren ezaugarri teknikoak eta prezioa, BEZ barne, azalduz.

6.3. Eskaerak UPV/EHUK darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dira.

Eskaeren ebaluazioa kanpoko prozesu baten bidez egingo da Ikerketaren Estatuko Agentziako Ebaluazio eta Koordinazioko Azpiatalean (lehengo ANEPen) eta ebaluatzaileak ez dira euskaldunak izango. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak euskaraz aurkeztutako eskaerak itzultzeko eskatuko dio Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak horretarako duen zerbitzuari. Itzulpena jasotzen denean, posta elektronikoz bidaliko zaio ikertzaile nagusiari eskaeran adierazitako helbidera.

Ikertzaile nagusiak bost egun balioduneko epea izango du itzulpena berrikusi eta oniritzia emateko. Epe hori zenbatzen hasteko kontuan hartuko da posta kudeatzaileak posta elektronikoko mezu bat entregatu dela konfirmatzeko bidaltzen duen mezua. Epea igarotakoan ulertuko da ikertzaile nagusia ados dagoela itzulpenarekin.

## 7. oinarria.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau 2017ko apirilaren 10era arte egongo da irekita.

## 8. oinarria.- EBALUAZIOA

8.1. Ikerketaren Estatuko Agentziako Ebaluazio eta Koordinazioko Azpiatalak (lehengo ANEPek) ebaluatuko ditu eskaerak, eskaeraren arduraduna den ikertaldeko ikertzaile nagusiak aukeratutako ebaluazio arloan.

8.2. Diru laguntzak esleitzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

8.2.1. Eskaeraren beharraren justifikazioa (0-40 puntu)

- a. Eskaturiko ekipoaren edo funts bibliografikoen erabilerrari buruzko informazioa. Esaterako, erabilera maila, horiek erabili izan dituzten ikertzaileak, inguruan diren antzeko ekipo edo funtsak, eta abar (10 puntu).  
b. Eskaturiko ekipoa edo funtsak zenbateraino diren egokiak edo beharrezkoak horien erabilera eskatzen duten ikerketa ildoetarako, helburuak lortzeko eta ikerketarekin jarraitzeko (10 puntu).  
c. Eskaturiko ekipamenduarekin edo funtsekin garatu beharreko jardueren bidez lortu nahi diren emaitza zientifikoak eta horiek gizarte eta ekoizpen inguruan izango dituzten ondorioak (10 puntu).  
d. Beste ikertalde batzuekiko partekatutako erabilera (5 puntu).

e. Eskatzaile kopurua (5 puntu).

8.2.2. Ikertaldearen ibilbide zientifikoa (0-40 puntu)

a. Eskatzaileek azken bost urteotan lortutako emaitza zientifikoak (15 puntu).

b. Gutxieneko ikertaldearen curriculum (15 puntu).

c. Eskatzaileek finantziazioa jaso duen zein ikerketa proiektutan parte hartzen duten edo parte hartu duten azken bost urteotan (10 puntu).

8.2.3. Baterako finantziatorako ahalegina (0-20 puntu)

Ebaluazio prozesuan, faktore esanguratsua izango da baterako finantziatorako aukera, baldin eta deialdian ekipamendua erosteko eskaturiko gutxieneko kopurutik gorakoa bada.

Atal honen balorazioan honakoa izango da kontuan:

- Baterako finantziazioa = %15 : 0 puntu
- $\%15 \leq \text{baterako finantziazioa} \leq \%75$  : [baterako finantziazioaren % - 15/3]
- Baterako finantziazioa  $\geq \%75$  : 20 puntu

Finantziatioa lortzeko ezinbesteko baldintza da (baino ez du zertan nahikoa izan behar) 8.2.1. eta 8.2.2. irizpideetako puntuazioen batuketan 60 puntutik gorakoa izatea.

## 9. oinarria.- ERABAKIA

- 9.1. UPV/EHUko IGBBk, egindako ebaluazioei buruzko txostenak ikusita, finantzatu beharreko eskaeren zerrenda lehenetsia osatuko du, gomendatutako aurrekontuak barne, eta Ikerketaren arloko errektoreordeari igorriko dio, beronek eman beharreko erabakia eman dezan.
- 9.2. Laguntza hauen esleipenari buruzko erabakia Ikerketaren arloko errektoreordeak emango du eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratuko da.
- 9.3. Diru laguntzen zenbatekoa ebaluazio irizpideen eta aurrekontuak ematen dituen ahalbideen arabera izango da.
- 9.4. Emaniko diru laguntza eskaturikoa baino txikiagoa denean, talde eskatzaileko ikertzaile nagusiak Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzari finantziazio osagarria, hau da, eskatutako finantziazioaren eta emandakoaren arteko aldeari dagokiona, zein organikotan dagoen jakinarazi beharko dio 10 eguneko epean. Informazio hori epe horren barruan jaso ezean, eskaera ezetsizat joko da.
- 9.5. Erabaki hori eman ondoren 10 egun baliaduneko epea irekiko da haren aurkako erreklamazioak egin ahal izateko IGBBri. Erreklamazio guztiak aztertu ondoren, 20 eguneko epean, behin betiko erabakia argitaratuko da. Horren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, eman duen organoari berari, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorrita.

Era berean, aipaturiko erabakiaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auzien dagokion epaitegian.

## 10. oinarria.- ESLEIPENA

- 10.1. Esleipenik lortuz gero, berori eskaturiko ekipamenduari egokituko zaio eta zenbatekoa ezingo da aldatu.
- a. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak ekipoa zenbatetsitako kostua baino merkeago erosiko balitz, lortutako murrizketa bi finantziazioei aplikatuko zaie, betiere, eskaeran adierazitako baterako finantziazio portzentajea mantenduta.
- b. Eskaeran aipaturiko ezaugarriak ekipoa zenbatetsitako kostua baino garestiago erosiko balitz, aldea talde eskatzaileak jarri beharko du.

- 10.2. Diruz lagundutako ekipamendua Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erosiko du zuzenean, betiere, UPV/EHUko Gerentziak eta Kontratazio eta Erosketen Zerbitzuak ezarritako arauak jarraituz.
- 10.3. Diruz lagundutako funts bibliografikoak UPV/EHUko Bibliotekaren bidez erosiko dira. Horretarako, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak Bibliotekari bidaliko dio eskaera.
- 10.4. Ordezkatutako ekipo zaharkituak Ikerketaren arloko Errektoreordetzara atxikiko dira. Ekipoaren egoeraren arabera eta irakaskuntzan izan litzakeen aplikazioak aintzat hartuta, errektoreordetzak behin betiko kentzea edo irakaskuntzarako zein bestelako erabileraren batera bideratzea erabakiko du.

#### **11. oinarria. JARRAIPENA**

- 11.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko ditu diruz lagundutako eskaerei jarraipena egiteko prozedurak.
- 11.2. Erosteke izapideak behar beste lehenago hasi beharko dira erosketa espedientea 2017ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko baita.  
Ikerketaren Gestiorako Zuzendaritzak ezarriko ditu, ekipamendua erosteko prozesuaren hasieran, egin beharreko kontabilitate izapideak, UPV/EHUn erabilitako kudeaketa ekonomikoko sistemak jarritako baldintzen arabera.

#### **12. oinarria. DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZEN ALDAKETA**

- 12.1. Ikertaldeari diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira, betiere, helburua betetzen bada, edo ikertaldeak diru laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribatuaren batetik, horrek bere garaian laguntza esleitzeko emandako erabakia aldatzeko erabakia ekar lezake eta, horren bidez, emandako laguntza murriztea edo kentzea.
- 12.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, IGBBk proposamena edo txostena eginda, erabakia emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari jarraiki: Erabakia ekipamendua erosteko laguntza eskatu zuen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio. Jakinarazpenean laguntza zenbatean murriztu den, baliogabetutako laguntzaren ordezkotzat finantziarioa aurkezteko zer epe dagoen eta, hala badagokio, ekipamendua kontratatzekeko prozesua baliogabetu beharra dagoen ala ez adieraziko da.
- 12.3. Ondorio honetarako, honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:
  - a. Eskatzaileak eskaeran adierazitako ekipamendua erosteari uko egiten dionean, laguntza horretarako eman bazen ere.
  - b. Laguntza eman ondoren edo ekipamenduaren kontratazio prozesuan zehar, eskaeran adierazitako ekipamenduaren oinarritzko ezaugarriak aldatzen direnean, ekipamendu ezberdina dela interpreta badaiteke.  
Nolanahi ere, ezaugarriak lizitatzaileek aurkeztutako eskaintzen prozesuaren parte gisa aldatzen badira, eskaintza onartzeko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren oniritzia beharko da, egindako aldaketek ekipamenduaren ezaugarriak hobetzea edo ekipamendua aldatzea dakarten erabaki ahal izateko.
  - c. Ekipamendu bererako beste iturri batetik diru laguntza jasotzen denean aldeztatik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
  - d. Deialdi honetako oinarriak –batzuk edo bat ere ez– betetzen ez direnean.
  - e. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
  - f. Gastu bera aurrekontuko atal organiko batean baino gehiagotan egozten denean.
  - g. Deialdi honek diruz laguntzen ez dituen gastuak egiten direnean.



- h. Proposatutako ekipamendua UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak urratuz erosten denean.

Ildo horretan, UPV/EHUK ezarritako prozedura zentralizatuetatik kanpo edozein erosketa eginez gero, laguntzaren emakida itzuli beharko da, eta une horretara arte erabili gabeko finantziazioa kenduko da.

### **13. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan jasota ez dagoenerako, aplikatuko da Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenak eta arau hauste eta zigorrei buruzko arauak.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean beste administrazio batzuetako organo zehatzei buruz egindako aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitate organorako direla, edo, gertuen dagoen organorako.

### **14. OINARRIA. EMAITZEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA**

Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza guztietan edo emaitzok zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

### **AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**

Deialdi hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartu eta biharamunetik aurrera jarriko da indarrean.

Leioa, 2017ko martxoaren 2a

  
José Luis Martín González  
Ikerketaren arloko errektoreordea

